



ERIDENEN DU ZERZAZ KONTENTA:
SAILKIDEEN OMENALDIA
HENRIKE KNÖRR IRAKASLEARI
(1947-2008)

MARIA-JOSÉ EZEIZABARRENA & RICARDO GÓMEZ (ARG.)



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

ARGITALPEN
ZERBITZUA
SERVICIO EDITORIAL

ERIDENEN DU ZERZAZ KONTENTA:
SAILKIDEEN OMENALDIA
HENRIKE KNÖRR IRAKASLEARI
(1947-2008)

Maria-José Ezeizabarrena & Ricardo Gómez (arg.)



Universidad Euskal Herriko
del País Vasco Unibertsitatea

ARGITALPEN
ZERBITZUA
SERVICIO EDITORIAL

2015
Bilbo

CIP. Biblioteca Universitaria

Eridenen du zerzaz kontenta : sailkideen omenaldia Henrike Knörr irakasleari (1947-2008) / Maria-José Ezeizabarrena & Ricardo Gómez (arg.) - Bilbo : Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua = Servicio Editorial, 2015. – 668 p. ; 24 cm.

Textos en euskara, español e inglés.

D.L.: BI-92-2015. – ISBN: 978-84-9082-092-6

1. Knörr, Henrike (1947-2008). 2. Euskara (Lengua). 3. Literatura vasca. I. Ezeizabarrena Seguro, María José, coed. lit. II. Gómez, Ricardo, coed. lit.

809.169

891.69.09

Argitalpen hau ondoko ikerketa proiektu eta taldeen barruan sartzen da:

Esta publicación se enmarca en los siguientes proyectos y grupos de investigación:

This publication has been developed in the framework of the following research projects and groups:

- «Aproximación al estudio de la competencia léxica y gramatical de los bilingües: metodologías experimentales y no experimentales» (Espainiako MINECO, FFI2012-37884-C03-02).
- «*Monumenta Linguae Vasconum* (IV): textos arcaicos vascos y euskera antiguo» (Espainiako MINECO, FFI2012-37696).
- «Historia de la lengua vasca y lingüística histórico-comparada» (HLMV-LHC) (Eusko Jaurlaritza, GIC. IT-698-13).
- «Hizkuntzaren jabekuntza, irakaskuntza eta erabilerak. Euskara, elebitasuna eta eleaniztasuna» (HIJE) (Eusko Jaurlaritza, GIC. IT-676-13).
- «Adquisición de lenguas, literatura y traducción en la formación plurilingüe» (UPV/EHU, UFI11/06).
- «Hizkuntzalaritza Teorikoa eta Diakronikoa: Gramatika Unibertsala, Hizkuntza Indoeuroparrak eta Euskara» (HiTeDi) (UPV/EHU, UFI11/14).

UPV/EHUko Euskararen arloko Errektoreordetzak lagundutako argitalpena

© Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua
Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco

© Maria-José Ezeizabarrena & Ricardo Gómez (arg. / eds.)

© Egileak / Los autores / The authors

ISBN: 978-84-9082-092-6

Lege gordailua / Depósito legal: BI-92-2015

Aurkibidea

Aurkezpena	
MARIA-JOSÉ EZEIZABARRENA & RICARDO GÓMEZ.....	XI
Hitzaurrea	
IÑAKI GOIRIZELAIA, UPV/EHUko errektorea.....	XV
Henrike Knörr eta UPV/EHUko Letren Fakultatea	
IÑAKI BAZÁN, Letren Fakultateko dekanoa.....	XVII
Henrike Knörr (1947-2008). Bibliografia	
GARIKOITZ KNÖRR (Universitat de València).....	XXI
Diskurtso-markatzaile berri batzuk: <i>beste hitz batzuetan (esanda/esateko)</i> , <i>beste hitzetan (esanda/esateko)</i>	
XABIER ALBERDI LARIZGOITIA (UPV/EHU).....	1
<i>Eguna</i> egunkariko idazleak (1937)	
XABIER ALTZIBAR ARETXABALETA (UPV/EHU).....	27
Lazarragaren eskuizkribuko adizki batzuez (euskal aditz jokoaren kronologia erlatibo baterantz)	
BORJA ARIZTIMUÑO LÓPEZ (UPV/EHU).....	49
Euskararen azentuera: hizkera tradizionaletatik euskara estandarrera	
GOTZON AURREKOETXEA, IÑAKI GAMINDE, LEIRE GANDARIAS & AITOR IGLESIAS (UPV/EHU).....	71
<i>Work in conflict</i> : (meta)literatura y escritura en novelas que abordan el conflicto vasco	
MIKEL AYERBE SUDUPE (UPV/EHU).....	97
<i>Hain zuzen (ere)</i> diskurtso-markatzailea: lokailu ala operadore?	
MIREN AZKARATE (UPV/EHU).....	113

Erreferentziakidetasun-sareen etiketatze-metodologia EPEC Corpus- sean tratamendu konputazionalari begira KLARA CEBERIO (UPV/EHU), ITZIAR ADURIZ (Universitat de Barcelona), ARANTZA DÍAZ DE ILARRAZA (UPV/EHU) & INES M. GARCIA-AZKOAGA (UPV/EHU)	129
Zubereraren /y/: bere sorrera eta hedapenaren inguruan ANDER EGURTZEGI (UPV/EHU)	149
New media – new challenges for language policy: Rethinking the role of public media in language revitalization AGURTZANE ELORDUI (UPV/EHU)	163
EPEC-RolSem: Ingeleseko <i>PropBank-VerbNet</i> eredura etiketatutako euskarazko corpusa. Erabakiak, egokitzapenak eta bereizgarriak AINARA ESTARRONA, IZASKUN ALDEZABAL, ARANTZA DÍAZ DE ILARRAZA & MARÍA JESÚS ARANZABE URRUZOLA (UPV/EHU) .	179
<i>Kode alternantzia</i> elebidun txikien hizkuntzak bereizteko gaitasuna- ren adierazgarri MARIA-JOSÉ EZEIZABARRENA (UPV/EHU)	207
Narratze-trebetasunen garapena. Ipuin bera eta ume bera hiru adin ezberdinetan INES M. GARCIA-AZKOAGA, ITZIAR IDIAZABAL & LUIS M. LARRINGAN (UPV/EHU)	227
Birformulatzailer zuzentzaileak testu idatzietan JULIO GARCIA GARCIA DE LOS SALMONES & MIKEL IRUSKIETA (UPV/EHU)	245
Partizipioa erlatiboa zenekoa: partizipio kategoria XIX. mendeko zenbait euskalariren lanetan RICARDO GÓMEZ LÓPEZ (UPV/EHU)	267
Sobre una estampilla ibérica de Ruscino (Castell Rosselló, Perpignan) JOAQUÍN GORROCHATEGUI (UPV/EHU)	281
Galderen eta erlatibozkoen ulermena haur euskaldunengan M. JUNCAL GUTIERREZ-MANGADO (UPV/EHU)	289
Euskarazko galdera erdibituak: analisi bitar baterantz ARITZ IRURTZUN (CNRS-IKER & HiTT)	307
Euskarazko silaba egiturak zen.ba.tzen OROITZ JAUREGI (UPV/EHU)	325

Aitzol Aramaioaren <i>Terminal</i> laburmetraia. Literatura eta zinema JON KORTAZAR (UPV/EHU)	337
Hiru hasperen haboro JOSEBA A. LAKARRA (UPV/EHU)	349
Zaraitzuko oikonimia JUAN KARLOS LOPEZ-MUGARTZA IRIARTE (NUP)	379
Ehulku eta Jagonet kontsulta-zerbitzuak aztergai JESUS MARI MAKAZAGA EIZAGIRRE (UPV/EHU)	401
Gaztelania H ₁ eta H ₂ -ren garapena 5 eta 8 urte artean: ipuinetako aditz kohesioa aztergai IBON MANTEROLA GARATE (UPV/EHU)	419
Irudikapen fonologikoa gaztelania-euskara afasia elebidunean AMAIA MUNARRIZ (UPV/EHU)	437
<i>Gauza ziurra</i> eta <i>gezur hutsa</i> : euskal izenondo adberbialen kolokazioak JUAN CARLOS ODRIUZOLA PEREIRA (UPV/EHU)	457
Sites of memory in the Narrative of Bernardo Atxaga MARI JOSE OLAZIREGI (UPV/EHU)	475
Tipologia eta hizkuntzaren erritmoa: Stampe eta Doneganen ideien inguruan MIREN LOURDES OÑEDERRA (UPV/EHU)	491
<i>Awkward birds</i> . Cosmopolitanism and globalisation issues in mi- norised cultural communities LOURDES OTAEGI IMAZ (UPV/EHU)	499
Oloroeko diozesako euskal liburuak eta zuberera idatzia MANUEL PADILLA MOYANO (UPV/EHU)	519
Koherentzia diskurtsiboa euskal baladen exordioetan PATXI SALABERRI MUÑO A (UPV/EHU)	537
Hizkuntza corpusak eta euskara PELLO SALABURU (UPV/EHU)	559
Landucciren hiztegien ordena eta honen eragina euskarazko hiztegian BLANCA URGELL (UPV/EHU)	577
Henrike Knörr y su relación con Turquía CARMEN URIARTE (Turkiaren ohorezko kontsula Euskal Herrian) . .	603

Zenbait ohar <i>bata bestea</i> anafora elkarkariaren inguruan ARITZ URRUTIA, BEÑAT GOITIA & XABIER ARTIAGOITIA (UPV/ EHU)	617
Arabako euskararen gaineko ikerketak KOLDO ZUAZO (UPV/EHU)	643
Tabula Gratulatoria	667

Koherentzia diskurtsiboa euskal baladen exordioetan

Patxi Salaberri Muñoa

Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila, UPV/EHU
patxi.salaberri@ehu.eus

1. Euskal baladaren gainbehera

Ezaguna da inguru hauetan egitura feudalen amaierarekin batera desagertzen hasiko zen adierazpideetako bat izan zela baladarena. Oinarri sozio-ekonomikorik gabe geratzean, Erdi Aroaren itzalpetik zetorren dinamika aberats hura¹ ere antzutu egin zen urte gutxiren buruan. XVI. mendeko idazkiak lekuko.²

Baina formazio feudalei uztartua zegoen literatur genero haren sorketala laster amaitu bazen ere, egia ere bada, hasieran biziago, ozta-ozta gerroago, gizarte-inertziaren poderioz mantendu zirela tradizioak emandako fruitu gogoangarriak. Adibideak iturri beretan: “y asta agora *se conservan cantares antiguos*”, “*refiere en los cantares antiguos del Vascuence*”, “*Las endechas en tiempos pasados*, que cantaban las plañideras alquiladas”... (Mitxelena 1964: 66 eta hur.; gurea da letra etzana).

Tradizio emankorreko bezain euskarri ahuleko, ahozko transmisioaren eta historialarien oharren bidez baino ez ziren gorde garai hartan sorturiko aleak, betiere paperezko oharretan jasotakoak inoiz monumentu oso izandakoen azken aurri edo herexa hits gisara estekaturik geratu zirelarik. Ezin ahortzi, bestalde, kasurik bitxienetan tradizionaldu ere egin zirela haietako batzuk, herriaren oroimenean hainbat mendetan zehar iltzaturik geldituz. Horiek behinik behin nolabaiteko osotasunean iritsi dira, zorionez.

¹ “Dentro de la continuidad del milenario ‘medieval’, se destacan dos períodos críticos [...]: el siglo que se extiende entre 1150 y 1250 aproximadamente, y el que desde 1450 llega hasta 1550 [...]. Entre esas fechas se sitúa lo que comúnmente designamos con el nombre de ‘literatura medieval’” (Zumthor 1989: 29).

² Haietako bat Garibai arrasatearra bera: “cantó las endechas siguientes en cierto día de sus honras, *cosa muy usada en este siglo* [jorratzen ari zen gaiaren mendean, alegia]” (Mitxelena 1964: 75; gurea da letra etzana).

Literatur produkzioaren garai baten itxiera-fase erabakiorra izan zen hura, edonola ere. Itxiera eta, aldi berean, idatzizkoaz eta inprentaz baliatuko zen epe berriari ateak irekiko zizkiona.

Begi bistakoa da balada zaharrak ahalbidetu zituen aroak ez zuela ondo-koarekin lotura kronologikorik baizik. Mundu-ikuskerak, literatur kontzepzioak, literatur formalizazioak, transmisio-bideak, ekoizleen estatus berriak eta perspektibak, hartzaileak... ezaugarri orok izan zuten iraulia.

Eta, batetik, antzutze- eta, bestetik, iraultze-garai hartakoak ditugu egun eskuetara iritsi zaizkigun baladen bertsio eskasen aztarnak, lekuko baladistiko preziatuak nolana ere, interes historiografiko hutsengatik bakarrik (ez literarioengatik, argi da) jasoak izan zirenak.

Ez dezagun ahaztu azken faktore horrek *desbalio* erantsi bat (barka hitz-jolasa) ekarri ziela hizpide ditugun lekukooi, literarioki aski modu deskontestualizatuan eta, nola esan, “txikiturik” papereratu baitziren kronika-liburuetan.

Horrek, esan gabe doa, zaildu besterik ez du egiten herexa eskas horien historia ehuntzea bilatzen duen ikerlariaren lana, eta lehen-lehenik haien ulertze eta interpretazioa.

Ageri-agerikoa da denborak ez duela alferrik egiten aurrera, eta honetan ere garaiak zeharo desberdinak ditugula balada-egileek eta egungo irakurleok. Alegia, hizkuntza bera omen dugun arren, duela bostehun urte baino gehiagoko gizartea beste mota batekoa zen, beste kultur balio batzuk zituen indarrean, beste pentsamolde batzuei jarraikitzen zitzaien... eta beste forma artistiko batzuk zituen langai, aipatu balore eta jarrerekin bat zetozenak eta guregandik urruntasun kuasi astronomikoetara geratu direnak.

Baina ohar bekio, aldi berean, funtsezko beharrak, komunikazio-premiak eta giza mekanismoak antzekoak ditugula gizakiok oro har. Hots, oinazea edo poza sentitzen zuten, hura kontatu nahi izaten zuten eta, azkenik, transmititzeko orduan, balizko entzuleen arreta jasotzeko bitartekoak erabili ohi zituzten. Lehendabizikoetan orduan bezalaxe segitzen du oraingo gizabereak; hirugarrenean egon litezke, ordea, desberdintasunik nabarienak. Emozioa transmititzeko bitartekoetan, hain zuzen. Eta horretan dugu egungo irakurleok ziurrenik eragozpen latzena, maiz asko ez baikara haien baliabideak ulertzeko gai izaten.

Balada-zatiekiko adigaiztasun-egoera ezaguna da: iritsi zaizkigun aleak gutxi dira, zati zenbaitetara mugatuak, linguistikoki ulergaitzak, kontzeptualki zer esanik ez... Esan bezala, horrek distortsio eskergak ekarri ohi ditu ulertzeko eta interpretatzeko orduan, eta giza ahalmen ilunen bategatik, horren zama gehiena, gure barneko gogo ahulari bizkarreratu beharrean, ordukoen mentalitate ulertezinari leporatu ohi diogu erraz asko.

Baladen hasierak —*exordio, incipit*—, adibide.

Horrela, modu ezin gizatiarrago horretan jokatzuz, haien azpiko pentsamendu prelogikoa edota, gordinago, haien logikarik eza ikusi nahi izan dutenetatik exordioen sinbolismo estilizatuaz edo irrazionalaz mintzatzera iritsi direnenganaino ez dira faltatu gure artean hornidura eta baliabide estetiko hutsak eta hamaika gauza azaleko gehiago atzeman nahi izan dituztenak ere.

Beti ere, esan bezala, exordioak aitzakiatzat.

Jakina, bestelakoak nahi genituzke gure honetan erakutsiko dugunaren haria eta mamia. Zeren eta, kultur distantziak onarturik eta zailtasunekin bada ere, gaurko mentalitate ahul honek ere aurki uste litzake aipatu exordio (gisako?) horien barnean behin eta berriz ukatu zaizkien uztardura semantiko-gramatikalak,³ ordutik hona ez baita, izan ere, hain gaindigaitz gertatu gizakien sentimenduak azaltzeko baliabideen arteko amildegia.

Eginkizuna, beraz, argia da: “se trata de dialogar con términos antiguos, portadores de un discurso, y que reducidos a nuestra única instrumentación intelectual, ya no entendemos” (Zumthor 1989: 25).

2. Exordioak hizpide. Hiru hitz hasteko

Hainbat antz eta kidetasun daudela begitandu lekigukeen arren, metodologikoki bidezkoa dirudi feudalismoaren garaiko epika eta eresiak alde batetik tratatzea, eta beranduagoko *kopla zahar* guztiak, batez ere lirika arlokotzat hartu ohi direnak, bestetik.⁴ Lehenengo haiek izango dira honako orriotan jorratuko direnak.

Jakina, ez da beti erraza “exordioak” garbi identifikatzea, iritsi zaizkigun aurri eta apurren artean bai baitira han-hemenka, baladaren faltan bada ere, exordio itxura duten atalak; eta, kasuistika areagotzeko, ez da falta baladaren barnean kokatua iritsia izan arren, exordio garbiaren antza duenik ere.

Bestalde, planteatutako korapiloak hobe aska zitezkeelakoan, hemen ez ditugu bereizi nahi izan tinta eta paperaren bidezko finkapena XVI-XVII. mendeetan izan zuten baladak eta, ahozko tradizioaren poderioz, XIX-XX.

³ Koherentzia diskurtsiboaren gabezia argi mintzo da, esaterako, Lekuona zaharra: “*Falta de cohesión lógica* de las imágenes poéticas con el asunto del cantar [...] por lo cual cabe decir de ella que constituye un factor que contribuye más bien al *efecto pintoresco del poema*” (1978: 38-39; gurea da letra etzana).

⁴ Maiz ikusten da batu egiten direla corpus berean balada zaharren esparruko *koplak* eta kantu lirikoen arlokoak direnak, berdinak bailiran irakurriz. Berrero diogu: ez dirudite parekagarri, ez baitiote ez literatur kontzepzio berari erantzuten, ez formari, ez funtzioari. Azaleko txinparta distiratsu zenbaitetatik at, dena dute ezberdin.

mendera artean iraunez ezagutu ditugunak. Halere, nahasmendu moduko horren metodologi arriskuak uxatzeko, aitortu behar da exordioek berek diruditelara, formalki eta tematikoki, moldaketa gutxien jasan duten atalak, “modernoenak” diruditenak barne.

Hortaz, lan honetan elkarrengandik bereizi gabe tratatuko dira exordio-mota biak, alegia, testu zaharretan bilduak izan zirenak eta, garai bertuetan sortuak izanik, azken bi mendeotan hiztunen ahotik jasotakoak.

Corpusari dagokionez, berrikuntza gutxi kanporatuko da hemen, Orixek idatzitako *Euskal literaturaren atze edo edesti laburra* delakoan (Ormaetxea 1927) “Poesi-erritarra” bezala irudikatzen dituen lehendabiziko baladak eta *eresiak*⁵ izan baitira beti ezagunenak eta “tratatuena” (baita, ziurrenik, gaizkien interpretatuak ere), eta horietatik izango ditugu geuk ere langai nagusi.⁶ “Milia Lasturkoren Eresia” eta “Bereterretxen Khantoria” izenekoez ari gara, noski.

Garibai arrasatearrak XVI. mendean jaso, hirukoitza (edo, hobe, hiru zatiz osatua) genuke lehena. Bigarrena, bestalde, ospetsu, landu eta irakurriena nonbait, XIX. mendean bildua izan zen; agerikoa, beraz, balada tradizionaldua eta duela gutxira arte herriaren oroimenean bizirik iraun duena dela. Biak izan dira, artikulua honen gaiari gagozkiola behinik behin, exordiorik aztertuenak. Lantegia zertxobait areagotzeko, historikoki gertaera zaharretako baten erreferentzia edo dagien “Mila urte igarota” izeneko kanta erantsi lekieke horiei biei, ia besterik ez badu ere, *incipit* esanguratsua baitarama buru-erakusgarri.

Lan honen ikuspuntutik begiratuta, exordiorik, nolabait esateko, “ziurrena” edo du hiru horietako bakoitzak. Besteek, ezaugarri desberdinak tarteko, zalantza gehiago sorrarazten dute hemen planteatzen den hipotesia taxuz eta neurritz garatu ahal izateko. Nolanahi ere, ez dira baztertuko.

⁵ *Eresiren* esangura Gabriel de Henaoren hitzetan: “De igual manera las Vizcaynas usan del *Ayene*, aspiración que significa Ay de mi! Esta se repite a cada tonada, que son tantas, quantas dicta el afecto o afectación de las que plañen. Las endechas en tiempos pasados, que cantaban las plañideras alquiladas, se llamaban en Vascuence *Eresiac*, y es lo mismo, que decendencias, porque en ellas cantaban juntamente con las obras, y hazañas del difunto su nobleza derivada de los ascendientes. El llanto a los muertos se dezía *Arrira jo*, que significa herirse por delante en la cara, ó pechos, dando el nombre por los extremos, que a él se seguían. Usabase en algunas partes dar golpes a la viuda las demas mugeres, que la asistían, diziendole freneticamente, *Galdu ahiz eta gal adi*, desdichada, ya eres perdida, pierdete” (Mitxelena 1964: 173).

⁶ Ohar txiki bat ezer baino lehen: orain hemen zehazteak luze joko lukeen hainbat ezaugarri desberdin (xedeak, sortze-unea...) tarteko, argi dago *eresiak* ezin multzoka daitezkeela baladen errolda berean. Dena den, hona ekartzearen arrazoia exordioa eraikitze teknikan datza, ikusiko den bezala, baladen eskema bertsuak segitzen baitituzte.

3. Exordioen interpretazioez

Aspalditik dator exordioen funtzioei eta ezaugarriei buruzko eztabaida, nahiz eta, antza denez, inork gutxi jarri izan duen belarria horretan.

Zuku eskasa atera zaie gurean, esaterako, Juan Mari Lekuonak sumatu eta, iragaitzez bezala, adierazitakoei: exordia “kantuaeren laburbilketa date-ke” (Lekuona 1997: 245); “sarrerako estrofa, edo estrofa, modulu enblematicoak izan ohi dira, balada osoaren logotipo gertatzen delarik [...]. Baina ez dira kroniken hasierak, baizik eta *txikian poema osoaren pathosa damate*, goi mailako *incipit* bat ezarriz” (1997: 257; gureak dira letra etzanak).

Eta kasu gutxi egin zaie, orobat, Montoyak eta Riquer-ek urte beretan idatzitakoei:

Una aplicación inmediata y casi mimética del exordio forense –dentro ya del campo de la literatura– sería la práctica del exordio épico —y aun del lírico—, ya que las circunstancias externas primigenias en que se produjeron eran semejantes a las del foro romano: la plaza del pueblo, el patio de armas de un castillo, la lectura pública... En estas circunstancias *la llamada de atención a su producto era, además de un reclamo de atención física, el modo de obtener la captación del interés del público, bien anticipando lo que habría de venir o bien ponderando el valor o utilidad del asunto*. Era un modo de vencer el <taedium> o repugnancia inicial de los asistentes a la sesión juglaresca. (1998: 40; gureak dira letra etzanak)

Agerian da balada-entzuleen arreta nekez lor zitekeela ulergarri ez ziren erreklamoak erabiliz edo, ahozkoaren kulturak berezko duen pragmatismoaren aurrean, esangurarik gabeko lau estetikokeria antzu (orduontzat ere ulertezinak?) jaurtikiz.

Gure artean, dena den, luzaroan jokatu da oharpen horiezaz jabetu nahi izan ez balitz bezala, eta bizirik da oraindik azken urteotan euskal literaturaren historiografian aski errotu eta hedatu den “tradizio” bitxi bat, exordiook ekoizpen *exotikotzat* hartuz, haietan formula dekoratibo hutsak ikusarazten saiatu dena.

Ezaguna da literatur ikuspegi magiko-dadaista horren teorizatzailea eta zabaltzailea Manuel Lekuonaren *Literatura oral vasca* (1978) liburua izan zela eta, gainerakoengatik duen balio eskerga inolaz ere gutxietsi gabe, horrek berak bilakatu zuela oiartzuarra exordioen logika diskurtsibo eta formaren ukazio-eskolaren aitzindari.

Oro har, koplak zaharrak aitzakiatzat hartuta, haien antza zuten balada-hasiera oro aztertu nahi izan zuen ustezko euskal “primitivismo” eta “mentalidad mágica” (1978: 90) baten talaiatik, garai bakoitzeko literatur ekoizpenak deskontestualizatuz, ezin batu zitezkeenak ere nahas-mahas batean uztartuz eta, azkenik, aipatu “tradizio historiografiko”ari oinarria eskainiz. Honela zioen:

Es propio de la mentalidad mágica, atribuir el mismo valor, las mismas propiedades ontológicas, a las imágenes de las cosas que a las cosas mismas [...]. Por lo mismo, cuando en una copla aparecen asociados dos elementos que entitativamente sabemos que están disociados pero que en dicha copla aparecen asociados nada más que porque sus nombres son parecidos entre sí, decimos que la copla está concebida y dispuesta con arreglo a una mentalidad mágica. (Lekuona 1978: 89-90)

Aipatzen zituen adibideen artean, gero ezagun bezain ospetsu bilakatuko ziren batzuk ditugu: “Domenjon de Andia”rena, “Bereterretxe”rena eta “Milia Lasturko”rena. Guztiak irrazionalak eta hornidura huts gisara erabiliak, nonbait. “Alostorrea”ri, halere, “mayor cohesión” (“y [...] mucho mayor aliento poemático”) atzeman zion oiartzuarrak, “pero con idéntico espíritu pintoresco y decorativo en el fondo” (1978: 92).

Lekuona zaharraz geroztik, ez da izan gure artean preziatzen den idazlanik non, okurrentziaren aitatasuna gorabehera, hark deskribatutako “técnica de incoherencia racional y falta de elementos de enlace” hura (1978: 90) ez den glosatu, kopiatu edota erruz “hornitu”. Horrela, salbuespen gutxirekin, ondoko hau besterik ez da ikusi *incipit* horietan: “elemento puramente decorativo”, “fórmula meramente ornamental”, “exordio prenarrativo, que no tiene relación con la fábula narrativa de la balada”, “falta de coherencia entre el símbolo y el mensaje”, etc., etc., etc.

Oiartzuarraren baieztapenen kume klonikoak, inondik ere.

Bistan da ia inork ez diola erreparatu Juan Mari Lekuonak exordioei atzeman zien funtsezko funtzioari bederen: kantuaren “laburbilketa” eta haren *pathosa* eskaintzearena, alegia.

4. Exordioak ulertu nahian

Goian aurreratu legez, ez gara hemen lehendabiziko europar aterki kapitalistaren pean sortutako lirika “berriaz” arituko, nahiz eta ustezko literatur teknika “primitivista” hura — idatzizko literaturaren esparruetatik itzurita-koarekin gero eta nahasiagoa— hedatuago ere gertatuko zen herri-poesian.⁷

⁷ Teknika horrek laster lortu omen zuen nolabaiteko onespina entzuleen artean: “no ofende lo más mínimo a los oídos acostumbrados a su canto” zioen Lekuona zaharrak (1978: 90). Baina “salbuespenak salbuespen” erantsi beharko litzateke jarraian, zeren Kamusarrik, bere garaiko basa-koplariak erabiltzen zituzten *jolas* haien lekuko pribilegiatuak, beste zentzu batez uler litekeen zerbait adierazi zuen lauko ospetsu batean (“Basa-koplariari”): “*Buztana badauka behin, / Buruaz ez du kasurik: / Monstro bat dezan eragin / Ez du ez, axolarik!*” (Artola 1988: 427).

Hortaz, *kopla zaharren* ildoko estetika berri eta onetsi bat sortua zela onartuta ere (beste baterako utziko dugu horri buruzko hainbat zehaztapen), estetika *zaharrari* erantzuten zioten pasarteak bakarrik begiratu nahi genituzke guk hemen, inpresioa baitugu ez dutela besteeikiko lotura larregirik.

Hori bai, labur beharrez, hiruzpalautara mugatu ditugu aztergaien *corpusa* osatzen duten aleak edo, nahiago bada, baladen exordio “garbi” direnak.

Denak dira ezberdinak, agerian da, baina badute hainbat ezaugarri interesgarri nabarmenarazi nahi genituzkeenak. Honatx:

4.1. “Beotibarko kanta”

Zaharren artean zaharrena (XIV. mendearen hasierako gertaera bat oinarri), balada honetatik zati labur bat baino ez da iritsi gure egunetara, Garibaik arrasatearrak 1571n bildua. Aski, dena den, esku artean darabilgunari buruz oharkizun pareka egiteko:

Mila urte ygarota
 Ura vere videan.
 Guipuzcoarroc sartu dira
 Gazteluco echean,
 Nafarroquin batu dira
 Beotibarren pelean, &⁸

Formalki, bi atal desberdin ditu: bi lerroko paremia buruan,⁹ batetik, eta lau bertso-lerro narratibo-esplikatibo, ondoren, errefrauaren erakutsi “sozio-logiko-morala”ren egikaritzea aurkezteaz gainera, *incipit* delakoa zeharo zentratzen eta ulertarazten laguntzen dutenak.

Esanahiari dagokionez, agerikoa da naturaren dinamikaren konstatazioa abiapuntutzat hartuta jokatzeko dela balada-hasiera honetan.¹⁰

⁸ Garibaik berak azaltzen du esanahia: “cuya significacion es dezir que aun passados los mil años, va la agua su camino, y q(ue) los Guipuzcoanos auian entrado en la casa de Gaztelu, y en pelea se auian topado con los Nauarros en Beotibar &” (Mitxelena 1964: 66). Zaldibiak 1564aren inguruan jaso zuen bertsiorekin dauden alde esanguratsuenak aditzean eta gaztelaniazko itzulpenean leudeke. Lehenari dagokionez, Zaldibiak *bildu* erabili zuen, eta itzulpena, berriz, honela eman: “A cabo de años mil vuelve al agua a su quibil. / Asi los Guipuzcoanos han vuelto a ser castellanos y se han topado en Veotibar con los navarros” (Juaristi 1986: 847-848).

⁹ “El uso de exordio proverbiales no es insólito en la poesía narrativa tradicional euskérica e hispánica” baieztatu ondoren, balada honen adibidea eskaintzen du Juaristik oin-oharrean (1986: 854).

¹⁰ Errefrauen bilduman ere eskaini zuen Garibaik lehen bertso-lerroen (hots, errefrauaren) esangura: “todas las cosas desta vida tienen naturalmente un curso aunque sea despues de pasados muchos siglos” (Urquijo 1976 [1919]: 572).

Hortaz, ura bere betiko bidera itzuli ohi dela baieztuta, giza portaera ere ura bezalakoa dela aditzera emanez ekingo zaio kantatzeari/kontatzeari, arreta erakartzeko teknikaren sareak (baita laburbiltzailea eta *pathos*aren aurkezlea ere) hedatuz: bake-giroan entzuleak besterik pentsa zezakeen arren, naturan bertan idatzirik zegoen lehenago edo beranduago naturaren berezko inertzia gaindiezin horrek ezinbestez ekarri behar zuela ekarri zuena eta baladan agertuko zena, hots, gipuzkoarrak eta nafarrak arerio direna.

Koplariak agintzen duen *berria*, beraz, albistea da, bai, baina espero izatekoa zen zerbaiten albistea: hala edo hola behartu eta ezohiko bilakaturakoa beti itzultzen da bere ubide naturalera.

Gero, amaieran, entzuleak berak atera beharko ditu ondorio sozio-politikoak eta portaerazkoak, baina lehena eta behinena zera izango da: natura gordina oinarrian duen giza jokamoldeak nekez aldatzen direla betiko, lehengorantz bultzatzen dituen orkoia baitute etengabe tiraka.¹¹

Ezaguna da balada honek ez duela jarraipenik utzi, baina exordioak argi asko erakusten du haren egituraren narratiboan zuen funtzio arreta-erakartzailea eta mezu-iragarlea. Esanahi eta eginkizun agerikoa, bada, logikarik gabeko eta hornidura huts izatetik urrunxko dago balada honetan *incipita*.

4.2. “Bereterretxen khantoria”

Jatorri zaharreko baladen artean, berau dugu herri xehearen oroitzapenean luzeen iraun dutenetako bat. XV. mendeko gertaera baten inguruan eraikia eta XIX. mendean lehen aldiz jaso, ez da harritzekoa XVI-XVII. mendeetan bildu zirenekin erkatuta erakusten dituen aldeak: osorik dago, erregularra da (mendez mende erregulartua, antza), musikarekin iritsi zaigu, aski ongi aditzen da... Eta horrekin guztiarekin batera, egoki mantendu du hemen hizpide dugun exordioa ere:¹²

Haltzak eztü bihotzik,
ez gaztanberak ezürrik,
enian uste erraiten ziela
aitunen semek gezürrik.

¹¹ Benetako “erakutsia” istoriotik haratago lihoake, azken batean, giza natura bere ohiko egoerara, “egoera naturalera” itzuli(ko) dela ikusarazteko anekdota historiko bezala planteatzen baitzaio entzuleari Beotibarko guda hau. Konnotazio, behinik behin, politikoak dituen mezu eszeptikoa, edonola ere, itxaropenik eza aldarrikatzen baitu une batean hoberantz (etsaigoa ezabatzerantz, alegia) egiten duten portaera-aldaketen aurrean.

¹² Salaberrik 1870ean argitaratutako bertsioa da exordioa dakarren lehena, Xahok hogeitatu urte aurretik jasotakoak ez baitu haren berririk eskaintzen.

Gorago aurreratu bezala, *incipit* ezagun¹³ eta eskuztatuegi honetaz esan eta idatzi diren gehienek funtzio dekoratibo hutsa antzeman diote oro har.

Egia da urruntasun kronologiko-kulturalak ia ezabatze-punturaino marguldu duela orduko gizartearekin eta garaiarekin (eta jokamoldeekin, moralarekin, estetikarekin...) ezin uztartuago zegoen esanahia bera eta, ondorioz, egun, ulertezina eta, areago, logikarik gabea irudi lekiokela gaurko hartzaileari, entzule-irakurle arrunta izan zein ikertzaile aditua. Alabaina, ez dirudi hori denik haren irakurketatik atera beharko litzatekeen ondorioa.

Exordioa ulertu ahal izateko, ezin ahantz daiteke baladaren baitan betetzen duen funtzio bikoitza, entzuleen arreta erakarri eta baladaren mezua zentratzearena alegia, horiexek baitira praktika baladistikoan —eta baita erretorika klasikoaren prezeptibaren arabera ere— lehen ahapaldi horri dagozkion eginkizun nagusiak.

Funtsean, beraz, kontalari/koplariak entzuleen arreta bereganatzean eta poema narratiboari hasiera egokia ematean datza exordioaren teknika.

Hori horrela, jendea ingurazteko eraginkorra izango bazen, entzuleen intereseko zerbait kontatu/kantatuko zuela iragarri behar zuen koplariak lehendabiziko lauko hartan. Eta horretan zetzan jolasa. Edo, nahiago bada, exordioaren topikoa (Curtius 1976 [1948]: 132-136).

“Bereterretxen khantoria”n nabarmentzekoa da narratuko den istorioaren muinaren (*pathosa*) labur-egokitasuna. Inork gertatzerik espero ez bazuen ere, mundua hankaz gora jartzen hasia dela iragartzen baita. Ordura arte ikusi gabek eta pentsaezinak omen zirenak gertatzen hasiak direla iragartzen, hain zuzen. Eta hori aditzera emateko baliabidea, eguneroko errealitate hurbilean oinarritua, natura eta giza portaeren arteko alderaketa da.

Sasi-silogismoen arloko ariketa bat bezala planteatua, paremien esparruko bertso-pareak ematen dio hasiera.

Era honetan, historian zehar modu berean jokatu duen natura (haltzak ez du —eta ezin du— bihotzik izan, haltza izango bada) eta gizakiaren eskuek esne garbitik sortzen duten produktua (definizioz eta esperientziaren kontatazioz, gaztanberak ezin hezurrik izan dezake, gaztanbera izango bada) aldaezintzat agertzen dira guztion begien aurrean. Horrela izan dira eta horrela izango dira beren esentzian; ez dute aldaketarik onartzen. Adimendun den inork ez du hori dudatan jartzen, zalantza bera aiher baitzaio munduaren logikari.

¹³ “[E]l ejemplo más ilustre y *mejor conocido* de todo el corpus de la balada vasca” (Cid 2010: 164; gurea da letra etzana).

Burutu nahi den erkaketaren lehen atala osatzen duen konstatazio bi-koitz hori premisa gisa finkatuta utzi eta gero, istorioaren narrazioarekin (baladarekin) jakinaraziko denaren *albiste* laburtuak osatzen du erkaketaren (eta ahapaldiaren beraren) bigarren atala, izatez kontrajartze asaldagarria agertu nahi duena.

*Albiste*a garbia da: sozialki, moralki eta kulturalki aldaezina zirudien giza portaera iraulita geratu da horrelakorik ezin espero omen zitekeen kategorian bertan, aitoren semeen gizarte-geruzan. Entzuleak jakin behar du kontatuko zaion narrazioan agerian uzten dela *hitza hitz* delakoak ez duela gehiagotan tradizionalki izan duen balioa izango; aurrerantzean ez dela or-dura arte fidagarri izan direnez fidatu behar; balore moralek eta sozialek porrot egin dutela; gezurra eta engainua hitzezko omen zirenen artean ere errotu direla. Aitoren semeak, Jainkoaren autoritateagatik, haren aginduz eta hari zin eaginez noble zirenak ere usteldurik daudela.

Llabur-llabur: hankaz gora jartzen hasia den munduaren albisteak litzate-ke honako *incipit* honek entzuleari iragarriko liokeena lehen inpaktuan. *Impossibilia* edo *adynata* izenekoen ildoko topikoa exordioarenean (hau da, “orain arte esangabekoak agintzen dizkizuet” dioenean) txertatua, alegia.¹⁴

4.3. “Milia Lasturkoren eresia”

Zaharrenen arteko lana berau ere, garai berean jasotako gainerako gehienak baino osoago iritsi zaigu, dituen atalek une desberdinetan sortuak izan zirela adierazten duten arren. Eta bitxia bada ere, ulergarri gertatzen da.

Hona Garibaik jaso eta eskainitakoa (Mixelena 1964: 75):

Cer ete da andra erdiaen çauria?

Sagar errea, eta ardao gorria.

Alabaya, contrario da Milia:

Azpian lur oça, gañean arria.

Agerikoa da aurreko baladen eskema orokor berdintsukoa dela honako eresi honen hasieran agertzen den lehendabiziko lauko hau ere (natura eta giza portaera, konstatazio esplizitua eta iradokitze gisakoa...). Desberdinta-sunik ez da falta, ordea.

¹⁴ Juan Mari Lekuonak honela laburtu ditu ahapaldi honen muina eta logika: “Bereterretxen hartan, gezurra eta faltsukeria dira arbuizaten. Kopla zahararen teknikaz mamitzen da mezua: hasiera estilizatuan bi irudi ordezkari aipatzen dira, ‘Haltzak ez du bihotzik, ez gaztanberak ezurrik’. Eta gero iduri fokala adierazten da, ziurtasun beraz uste zuela aitunen semek ez zuela esaten gezurrik. Bi esaldi paralelo daude, eta hirugarrena kontrajarria, salatuz hautsi duela aitunen semeen kode etikoa” (Lekuona 1997: 246).

Nahiz eta zendutakoaren ahizpak (eta geroago, koinatak ere) literalki erabilitako hitzak ez izan Garibaik eskainitakoak,¹⁵ uste izatekoa da ahozko formulen teknikak ongi baliatzen zituen emakume baten aurrean gaudela.

Formulazio paremiologiko batez baliatuz,¹⁶ honako *incipit* honetan kontraste larri bat da azpimarratu nahi dena, bizitzaren kanta izan behar zuena emazte eta ama berria heriotzaraino eraman duen tragedia bilakatu baita. Hori abiapuntu, senarraren begirunerik ezaren eta, are, emaztearekiko utzi-keriaren eta mespretxuaren kontaketa/leporatzea izango da eresiaren ideia fokala. Konklusio orokor batekin, alegia, senarraren herriak berdin tratatzen dituela Gipuzkoa zabaletik bertara ezkonduko emakume guztiak.

Kontrasteak, agerian da, emakume erditu berriaren poza eta zauri-osagarrri ere badiren janari-edari enblematikoekin¹⁷ ospatzen den jai giroa iraultzen ditu erroetik, haien orde behin betiko heriotza hitsa ezarriz. Alegia, poztasuna besterik utzi behar ez zuen zauriak, bizitza berri baten munduratzeak ekarri ohi duenak, bizitza-emailearen zauri latza ekarri du, haren bizitza-hariaren etena. Haur jaio berriarekin etorri ohi den zoriona amaren heriotzean amaitu da.

Eta garrantzitsuena dena: gertakari hori “naturala” izan ez dela iradokitzen da exordioan, beste zerbaiten ondorio baizik. Izan ere, gero eresiak agerian utziko duen bezala, gertakari horrek errudun bat du, lauso samarra nonbait, baina erruduna edonola ere: senarra izandakoa, alargun gertatu aurretik ere, emaztearekiko fideltasunaren zinari uko eginez, zilegizkoa ez zen beste amodio bat izan bide zuena, ez unean unekoa, arnas luzekoa baizik, itxuraz bizitza guztirako itundutako (bigarren) ezkontza ekarriko ziona.

¹⁵ Lan-hipotesi gisa beti pentsa liteke hiletetan jaurtiki hitz testualak gabe, koblakarien bahetik igaroak ere izan daitezkeela Garibaik jasotakoak. Horrela balitz, estilo eta eskemaren homogeneousazioaz mintza lekiguke hori, besteak beste.

¹⁶ Aurrekoetan bezalatsu, paremien esparrukoa dirudi lehen bertso-lerro pareak. Halako erretrauren bat egon zitekeen, akaso, oinarrian: “*andra erdia*[en zauria] / *sagar errea ta ardao gorria*” (Landuccioren lexikoa: “Parida mujer, andra erdia”; *apud* Agud & Mitxelena 1958).

¹⁷ Tradizionalki ardo gorria (odolaren kolorekoa eta berau bezain bizigarria), erditzean galdutako odol eta indarrak berreskuratzen laguntzen duen edaritzat hartu izan da; erlijiosoki ere ezin sinbolikoagoa (gogoratu meza kristauan duen balio zentrala, berezko ezaugarriak mantendu arren, Kristoren zinezko odol bilakatzen baita). Halaber, sagarra, errea zein gordina, jaki sano, indar-emaile eta preziatua izan da esparru hauetako kulturetan; sinbologia erlijioso handikoa: “en la iconografía mariana [...] la manzana es también una alusión a la Salvación” (García Mahiques 1991: 82). XII-XIII. mendetik aurrera, ikonografia horrekin lotua dago sagarraren ustezko balio erlijioso eta terapeutiko-mirakulutsua (ohikoa da Ama Birjina semea altzoan eta sagar bat eskuineko eskuan dituela irudikatutik agertzea).

Exordioaren planteamendua, beraz, eresia bera bezain dramatikoa da: zoriona behar zuena nola bilakatu den zorigaizto bizitzaren hari arruntean.¹⁸

Ez dirudi, hortaz, lauko honetan elementu dekoratibo hutsen aurrean gaudenik. Are gehiago, kontzeptualki ere bitxiegia litzateke ahizparen tragedia ezin era latzagoan bizitzen ari denaren eresi dramatikoaren atarian¹⁹ osagai estetiko huts bat agertzea.

4.4. “Errodrigo Zaratekoaren kanta”

Arma escuduac on dira dardos,
pareric estabe canporacos,
çaratearrac galdu ei dabe
Marquia-Çuya çeculaco.

Balada hau Iburguen-Cachopinen *Kronikatik* jaso eta ezagutarazi zuen Arriolabengoa lagunaren iritziz, “exordio labur batez hasten da, kantu epikoetarako bereziki sortuak diruditen bi bertso formulistikoz, hirugarren bertsoan gaiaren sarrera orokor gisa kantuak kontagai duen gertaera nagusia aipatzen delarik” (1996: 95).

Ez genituzke baztertu nahiko, halere, orain arte ikusi dugun eskemaren hari nagusiak. Ildo horretatik, lehendabiziko bertso biak (formulistikoa edota paremikoak) ebidentzia militar batez baliatuko lirake horrekin erabateko kontrastean legokeen beste zerbait iradokitzeko eta, azken buruan, “zerbait” horren berri eskainiko duen baladari hasiera emateko.

Barne logikak, beraz —eta hipotesi batekin ari garela ahaztu gabe—, kontu koherente bat (ez dekoratiboa) adieraz lezake lehen bertso-lerrootan bertan, hots, “arma-escuduac” bai, baliagarriak eta paregabeak direla kanpoko etsaiarengandik eta haren gezietatik babesteko, baina oraingoan, baladan kontatuko den bezala, beste zerbait gertatu dela, nonbait konfiantza-esparruetatik edo etorri baitzaie arerioa, kanpokoetatik begiratzeko zituzten erredolekin defendatu ezinik geratu direlarik. Bando bereko zirenetatik edota bake-hitza emana zutenetatik etorritako traizioa eta engainua izan zitezkeen, bada, baladaren *leitmotiva* eta, azken batean, Markina-Zuia sekulako galtzeko benetako arrazoia.

Esan gabe doa entzuleak somaezina zen etsaigoren bati buruz mintzatuko zaiona ulertuko duela *incipitean*. Hortik, balada entzutera hurbiltzeko lehen harridura, Murgiak bere hartan segituko baitzuen gudu klasiko batean

¹⁸ Ohar bekio dramaren garrantzia nabarmenarazteko exordioak darabilen beste faktore bati: haur jaio berria behin ere ez da aipatua izango, amaren heriotzak arras ilundu baitu ustez ondo burutu den jaiotzaren poztasuna.

¹⁹ Ezin ahantz daiteke, gainera, lehen pertsonan garatua izan zela *eresia*, hileta-kanta, alegia.

edota armengatik bakarrik izan balitz. Baina ez da hori iragarri zaiona. Baladak argitu beharko dio zalantza.

5. Exordio izan zitezkeen beste koplak zenbait

Ez dago argi ea noraino eta zenbatetaraino izan litezkeen orain arte aipatu diren exordioekin eta eskemekin alderagarri azalean bederen antzeko ematen duten beste koplak batzuk baina testuinguru desberdinetan garatuak diruditenak.

Egia da formalki orain arteko exordioen modura taxutuak agertzen direla eta ezaugarri nabarmenenak ere antzeko dituztela. Alabaina, herren gertzen dira maiz asko. Guztiarekin ere, hizpide dugun hipotesiaren frogagarri gisara ekarri nahi genituzke hona.

5.1. “Arrasateko erreketak”

1448ko gertaera larri bat abiapuntu,²⁰ eskuizkribuak eskaintzen dizkigun zatiak zalantzazkoak dira oso. Baladaren ikuspuntutik, esan nahi baita. Mitxelenak adierazi bezala, “no tenemos seguridad alguna de que la tirada esté completa (es decir, no le falte algún verso intermedio) ni de que el orden de los versos no haya sufrido ningún trastrueque” (1987: 455).

Edozein modutan ere, hona ekarri dugun lauko honek —dagoen dagoenean dagoela— baladaren exordio izateko ezaugarriak azaltzen dituela esan liteke.

Argui yçarrac urten dau
Çeruan goyan ostançeän
Bergararroc asi dira
Trajjioe baten asmaçeän²¹

Urteetan zehar eman diren interpretazioak gorabehera, ez dirudi lerro guztiak behar bezala irakurriak izan direnik. Bigarren lerroa, batik bat, eta hartan, “ostançeän” hitzari dagokiona bereziki.²² Aski garrantzi handiko hitza, ikus daitekeenez.

Izan ere, harrigarria zatekeen luzapen erretoriko hutsaletan ia xahupenik egiten ez duten baladetan hain bertso erredundantea (eta literarioki antieko-

²⁰ “Es uno de los más sonados entre los desastres que trajeron consigo las luchas entre nuestros banderizos” (Mitxelena 1987 [1979]: 454).

²¹ Bertsoak lerroka ematen dituen bertsoia Mitxelenaren *TAVetik* jaso badugu ere (1964: 83), bestelakoa da testuaren lerrokatzea jatorrizko eskuizkribuan. Hona Mitxelenak eta Rodríguez Herrerok emandako transkribapena (1988 [1959]: 744): “argui yçarrac vrten dau, çeruan goyan / ostançeän, Bergararroc asi dira, tra / jjioe baten azmaçeän”.

²² *TAVek* dakarren esanahia ematen dio *Orotariko Euskal Hiztegiak* hitzari, hots, “firmamento, cielo”; halere, “de interpretación no segura” dela adierazten du jarraian.

nomikoa) aurkitzea: “zeruan”, “goian” eta “ortzian”²³ (hori izan baita, azken batean, lerroari eman zaion interpretazioa), esparru semantiko bereko hiru hitz, baladaren ezaugarri bati berari ere deus ekartzen ez diotenak.

Gure ustez, irakurketak ontzat hartu beharko lituzke lehen hitz biak. Izatez, gizakiak, inguruneaz duen pertzepzio xumean oinarriturik, bitan banatuta ikusiko luke bere gaineko espazioa. Eta tarte haietako bat da, hain zuzen, baladak espresuki adierazi nahiko lukeena.

Hau da, batetik, “buru gaineko” zerua legoke, hegaztien tokia, irastuak, euri-elurrak eta hodeiak agertzen direneko lekua; bestetik, “goi-goikoa”, iretargi, artizar eta eguzkiaren zeru-lautada izango genuke, hodeiek estaltzen ez dutenean ikusten dena alegia. Agerian dago exordioko “çeruan goyan” bikotea azken honetaz ari dela.²⁴

Beraz, interpretazio-arazoa (eta argitze-gakoa, aldi berean) *ostançean* hitzean legoke.

Baina urrunegira ez joatearren, akaso aipatu berri dugun hiztegi-gile bizkaitarraren harako sermoi hark erakutsi liezaguke bidea: “Nire adi zagozanon artian euskalduna eztanik ezaldago; balego, nire ustez arrittuta egongo litzake nire esakixuna entzun da gero. Bizkaixa beste errixen irakasle [...]! Eta elitzake asko ixango aunako gogamenen bat bururatutia: ‘Ezaun da sermolari au bizkaitarra dana. Nori *osterantzian* otu onetariko esakixunak aintzat eta aotan artzia?’” (Azkue 1896: 24).

Filologiako urmaeletan hankak lar busti gabe ere, ausartuko ginatete esaten lekeitiarraren *osterantzianek* Erdi Aroko *ostançeanen* iturburuko urak edaten dituela, oraindik Aramaio-Arrasate bizkaitarretan erabili ohi den *ostantzien* delakoak bezalatsu.

Hau da, haren baitan ez dago zeru-ortzirik ezkutaturik, inondik ere, eta bai, ziurrenik, erdarazko “[no] obstante”-ren bat mozorratuta. Ideiak zein esaldiak kontrajartzen dituen partikula adbertsatiboa, hain zuzen, beste kasuren batean ikusi den *alabainaren* parekoa.

Horrela harturik, berriro egongo ginatete “Bereterretxen khantoria”n aurkitutako paralelismo eta kontrasteen jolasaren aurrean (natura eta giza jokaera) eta erabateko koherentzia eta logika lituzkeen ahapaldi baten parean: *zeruan goian* artizar xahuak gau garbia argitzeari ekiten dionean, *argitasun* hori fisiko-naturala den ezerk kutsatzen ez duenean, *hemen*

²³ Azkueren zalantzak gorabehera, Akesolok honako hau esanarazi zion lekeitiarrari hiztegiaren *Suplementoan* (1969: s.v.): “OSTANTZ, alba”.

²⁴ Honen ildokoa, halaber, “Testamenduarena” baladaren exordioak eskaintzen duena: “Izar ederrak argi egiten dau / *zeru altuan* bakarrik. / Ezta bakarrik, lagunak ditu / Jaun zerukoak emonik” (Lakarra *et al.* 1983: 167-168; gurea da letra etzana).

behean, zeruaren bestaldean dagoen beheko lur honetan preseski, giza panorama orain artean aratza arras *ilunduko* duen zerbait asmatzen ari dira printzipioz behintzat leial eta zintzo beharko luketen gizaki batzuk, bergararrak, alegia.²⁵

Traizio zikina eta tragedia agerian utziko dituen balada bat iragartzeko exordio gordina, hortaz, honako hau ere.

Urrunxko, nolana dela, pentsamendu irrazionalatik eta ornamentu estetiko-dekoratiboetatik.

5.2. “Sandailia”

Balada honen kasuan ohikoa da elkarrekin eta jarraian ematea jadanik Puerto de Oñate-Isasti-Floranek bi kanta bezala eman zutena. Agerikoa da gutxienez bi direna,²⁶ ordea, eta ez balada (“cantar”) bakarra.²⁷

Bigarrenaren hasieratzat agertzen den exordio interesgarria²⁸ albo batera utzita (erraz asko sartuko baikinake honako lan honen mugak gaudituko lituzketen kontuetan), lehen kantaren bigarren lauko bezala aurkeztutakoari erreparatu nahi genioke, gaingiroki bada ere, hemen.

Egia da zortzi bertso-lerro besterik ez zela bildu, eta haietako lehen lauek, kantaren enberrari tematikoki ondo uztartuak,²⁹ entzuleak hurbilaraz-

²⁵ Ohar bekie lauokan esplizituki erakusten eta didaktikoki iradokitzen diren kontraste desberdinei: espaziala, argitasunezkoa, morala...

²⁶ “Nos hallamos ante fragmentos incompletos y que pueden incluso haber pertenecido a cantares distintos, aunque posiblemente relacionados entre sí” (Mitxelena 1964: 93).

²⁷ Aitortu behar da, halere, bi kanten artean ezarritako gaztelaniazko azalpenak bakar baten zatiak balira bezala uztartzen dituela biak. Alegia, lehen kantak Mendoza ibarjaunari konfiskatutako ardoa “lapurrek”, Robin Hood goiztiarren antzera, ardoaren jabeak Sandailia leizean setiatu edo zituenei eraman zietela kontatzen badu, bigarrenaren lehen zatia setiatzaileen-tzak amaiera hitsaz mintzo da. Tartekatutako itzulpenak, berriz, honela dio: “Este Mendoza era el Merino mayor; y el vino que para él iba, cogieron en el camino y se lo llevaron a los cercados de Santa Ilija [aurretik jarritako kantari dagokio itzulpena]. Toda la Hermandad los tuvo cercados algunos días, y al cabo, como no se querían rendir, ataparon la torre de torresnos detocinos gordos y los asaron, pensando que con aquella manteca y grasa les abrasaran, pero bien seguros estaban. Al fin les dejaron, y entonces se compuso este cantar [hots, bigarrenak]” (Mitxelena 1964: 93; gureak dira kako zuzenen artekoak).

²⁸ Mitxelenak proposatu irakurketaren arabera, honako hau izan liteke haren hasiera: “Sandailiac atea dituz zizarrez, / Nola zizarrez da ala zendalez. / Hermandadea arean doa negarrez, / Anso Garciac gasteluori emun ez” (1964: 94).

²⁹ *Zalagarda ganboarra* eta azkenean galtzaile atera ziren *oinaztarrak*, lokarri: “Solíanse acoger los Lacayos de todo el Bascuence a Oñate, a Sancho García de Garibay, y estos, en el puerto de San Adrián, pidieron a un arriero de Hernani, que se decía Juan Zaar, que les hiciese cortesía [edateko eman ziezaien]. Y como no les daba, le quitaron de su dinero, y después se quejó al Corregidor y a toda la Provincia, los cuales embiaron al Merino maior con mucha

teko kantatu ohi ziren lelo deigarri-errepikagarrien antza dutela beste ezere-
na baino gehiago:

Ala Zalagarda
Zalagarda mala
Zalagarda gaisto
Oñaztarra oondaco

Ondoko lau bertso-lerroek, aldiz, osorik iritsi ez zaigun ustezko balada-
ren hasiera osa zezaketen:

Ardao zuri, ardao Madrigalga,
Ardao zuria Mendoza gana doa,
Alabana Sandayli gogoa,
Zalagarda Sandaylira doa.

Bistan da gorago agertu den eskemaren ildokoa dirudiela honek ere bete-
betea. Alegia, bi polo tematiko, batetik (ardo zuriaren irudia — lapurtutako
ardo erreala, nolnahi ere — hartzen du loturazko erreferentziatzat³⁰ lehen
bertso-lerro pareak; baladaren funtsa izango diren Zalagarda eta Sandailiako
setiatuak azken biek) eta bipolaritate gramatikal-formala, bestetik (perpaus
enuntziatiboa lehena; aurkaritza juntagailuduna aurkezten duena bigarrena).

Erakusten duen tankeragatik, lehen bertso-lerroak erretrau batean izan
zezakeen oinarria, agian kalitate bikaineko ardo zuria adierazteko erabilia.³¹

gente a Oñate. Y algunos avisaron a Sancho Garcia y sus lacayos, los cuales huyeron a la
Cueva de Santa Iliá, y allí los cercaron; y esta cueba tiene una puerta quasi media legua de
distancia y por allí *les proveyan de todo lo necesario sus amigos con un criado que se llamaba
Zalagarda*, y se compuso entonces este cantar” (Mitxelena 1964: 92-93; gurea da letrakera
etzana).

³⁰ Balirudike konfiskatutako ardoarena baladaren hari nagusia bidera lezakeen motiboa (motibo
irrigarria) izatea: setiatzaile-buruari berari bahitutako luxuzko “pizgarria” setiatuei eramaten
zaie opari gisara, beraien jarrera numantinoan manten daitezten eta barruan dauden bitartean
nolabaiteko “garaipena” ospa dezaten kanpoko setiatzaileen kontura..., betiere Zalagarda
morroia protagonista izanik.

³¹ Avilako Madrigal de las Altas Torres-en egin ohi zen ardoaz ari bide da balada, egun *Rueda*
izendapena daramaten ardo ospetsuen eskualde berekoaz, eta beharbada mozarabiarrek XI.
mendean sartutako *verdejo* izeneko mahats-motarekin egin ohi denaz. Eta “antonomasiatzko
ardo zuria” zela/dela esan genezake, zeren eta Jorge Manriqueren (1440-1479) “Coplas a una
beoda”-tik hasita (“¡Oh, beata Madrigal / *ora pro nobis* a Dios!”; Manrique 2002 [c. 1511]),
espainiar literaturan etengabe goraiatutako ardoa izan baita bertako zuria. Euskal letren
munduan beste zerbaitegatik ere ezaguna dugun Torres Naharro (1485-1540) idazlearen
Tinelaria antzezlanean honako hau irakur daiteke, esaterako: “ESCALCO: Yo he placer; /
traigan luego de comer. / Siempre fuiste largo y franco. / Pero dime, bachiller, ¿son los mozos
tinto y blanco? / CANAVARIO: ¡Y aun qué tal! / Sant Martín y aun Madrigal / son con éstos

Formalki, bada, exordio baten aurrean egon gintezke.

Ez du, tamalez, jarraipen ezagunik ustezko baladaren garapenarekin kontrastatu ahal izateko, izan ere, iritsi zaizkigun hurrengo lerroak, gaztelaniazko testuak berak dioen bezala, beste “cantar” batenak baitira.

5.3. “Domenjon Andia kanta”

Balada hau Iztuetak-eta zioten bezain zaharra balitz ere,³² zail da jakiten exordio baten aurrean gauden, honako lau bertso-lerrook besterik ez baitzaigu iritsi:

Sagarra eder gezatea,
gerriyan ere ezpatea;
Domenjon de Andia
Gipuzkoako erregia

Baina bestek esandakoak gorabehera (eta ez dira gutxi izan, ez edonolakoak, honetaz esan direnak ere), bada zalantza eta ohar xumerentzako tarterik.

Esate baterako, ustezko exordio-izaerak dakarkigun zalantzaz gainera, ez dago argi zatitxo honen transmisioa bera, ez eta ondo jaso izan zen, ez egokiro irakurria edota transkribatua iritsi zaigun, ez eta, tonua ikusita, noraino izan ote den mendeetan zehar ukitua eta moldatua ere.³³

Bestalde, ustezko exordio honi dagozkion lehen bertso-lerroek ere ez dirudite aditzeko erraz. Batetik, ez dago argi paremien esparruko formularen bat dagoen oinarrian eta, areago, uztardura logiko-gramatikalak gorabehera, gezate hitzaren bakantasunak ere ez du lar laguntzen interpretazioan (*hapax* bat omen).

Eragozpenak eragozpen, baldin eta exordio baten aurrean bageunde (eta litekeena da), ondoren zetorkeen balada, printzipioz, laudoriozkoa izango zen, Gipuzkoako pertsonaia historikoari eskainitako gorazarrea.³⁴

desechados. / D’esto bebe el Cardenal / cuando tiene convidados. / ESCALCO: ¡Oh, gran cepa! / ¡Bendito el cuerpo do quepa / Un licor tan escogido!” (Torres Naharro 1999 [1517]: “Jornada V”, 70-82 bertso-lerroak).

³² 1457-1489 urte bitarteko gertaeraren bat du balada honek oinarri eta, horrexegatik nonbait, haren protagonista nagusiaren garaikotzat hartu izan da pasarte hau ere.

³³ Manuel Lekuonak beste bertsio hau eskaini zuen liburuan (1978: 91): “Sagar gorri gezatea... / Gerrian bere ezpatea, / Domenjon de Andia da / Gipuzkoa’ko Erregea”.

³⁴ Lopez Isastik, Gorosabelek eta bestek diotenaren arabera (Garmendia 2007: 7), 1471n “Frantzia”-n (Lapurdin, alegia) sartu zen Domenjon Andia, gipuzkoarrez osatutako gudaroste batekin, Ingalaterrako Henrike IV.ari Frantziako Luis XI.aren aurka laguntzeko. Ordain gisa, Zaldun-Ordenaren bateko ohorezko kide izendatu omen zuen errege ingelesak eta, esker onez nonbait, “Gipuzkoako errege” bilakatu euskal koblakariak.

Erantsi beharrik ez dago horrek berak eska zezakeela beste eredu desberdin bat *incipit* delakoa atontzeko orduan, entzuleentzat harrigarri gerta zitekeen moral eta lege-hausterik gabe, pertsonaia tolosarraren bertuteak eta balentriak —militarrak, ziur aski— goratu nahi izango baitziren kasu honetan.

Nolanahi ere den, lehen bi bertso-lerroetan badirudi naturatik hartutako elementu enblematiko baten³⁵ eta errege gudutzaile ororen botere-ikur nagusiaren arteko uztarketa iradoki nahi izan zela, bien edertasuna (sinbolikoa erreala bainoago) azpimarratuz, berezkoa eta naturala sagar gezatearena, eta gerrian agerian, distiratsu eta erabilia izateko prest eramatearena ezpatarena.

Ustezko laudorioak, beraz, hortik aurrera.

6. Exordioen ezaugarri formaletan arakatzeko

Jendaurrean kontatzeko eta kantatzeko sortua izanik, balizko entzuleengana iristeko bitartekoak erabili behar zituen koblariak balada aukerzten hastean. Musikarena ohi zen haietako bat. Eta uste izatekoa da gurean ere musikarekin batera, balada-kantarien ahotsek eta kantatzeko moduek eta musika-tresnek... eta nolabaiteko eszenografia batek ere izango zutela baliabide haien artean tokirik.

Baina haietako bat bera ere gutxietsi gabe,³⁶ kantatzen zenak hartzen zuen ordurako hurbilduak zirenengan eragiteko eta entzule gisa iraunarazteko erantzukizuna:

también había que disponer la benevolencia del público. Y esto se lograba mediante *las técnicas de prometerles brevedad en la exposición, o la exposición de un asunto de interés para los oyentes, o de hacer hincapié en el exotismo del argumento* y, sobre todo, en no hacer gala de arrogancia, acudiendo a la modestia retórica, invocando la ayuda de Dios y suplicando la benignidad de los oyentes... Técnicas que eran de todo punto necesarias, de querer obtener un resultado, aun económico, exitoso. (Montoya & Riquer 1998: 41; gureak dira letra etzanak)

Maila zehatzean, beraz, baladaren testuari zegokion entzuleak amaieraraino arretatsu estekatuta izateko funtzioa betetzea.

Eta hori arreta-erakarle bezala identifika zitekeen atalean lortu behar zen, hemen hizpide izan dugun exordioan, hain zuzen.

Formalki, entzuleen arreta bereganatzeko bitarteko bat baladan garatzeaz zegoenaren laburbiltze modukoa izan zitekeen, muina edota *pathosa* kontzentraturik eta, ahal zelarik, era harrigarrian aurkezten z(it)uena.

³⁵ Ikus 17. oharra.

³⁶ Zumthor-ek gogoratu legez, “la calidad de la voz constituye para el público uno de los criterios, si no el principal, de la ‘poesía’” (1989: 223). Eta, ondorioz, baita jendea hartarazteko ere.

Horretarako teknikak, esan bezala, anitzak izan zitezkeen, baina guregan iritsitako aztarnen arabera, balizko entzuleen sinesmen eta giza baloreetara jotzea izan bide zen ohikoenetakoa ingurune feudalizatuetakoa kanta epikoan eta eresian; antza denez, berezko darama jokamolde horrek interes-sortzaile, eraginkor eta arreta-erakarle gertatzearena.

Koplariak bazekien, noski, zer gertatuko zen narratzen hasia zen istorioan eta, betiere, gertaera jakinaren talaiatik mintzo zen, nolabaiteko tentsio dramatikoa, ustekabekoa eta, zergatik ez, inoizka misterioetsua ere sortuz.

Labur-zurrean, eta orain arte aztertutako koherentzia diskurtsiboaren korolariora gisara, esan liteke baladen exordio zaharrek honako ñabardura logiko-gramatikalok erakutsi dituztela eskema orokortzat:

1) Istorioaren ezohiko izaera era bizian nabarmenaraziko duen *bitasun tematikoa*. Horrela, zehazki, bi gairen inguruan egituratu izan dira *kopla* gisako bertso-lerroak eta modu paraleloan garatu, istorioaren kontraste nagusiak azken muturreraino eramanez (hortik exotismoak) eta, aldi berean, haien baitako *pathosa* iradokiz.

Lehendabiziko gaia, Natura. Natura (edo, hedapenez/antzekotasunez, ezaugarrietan harekin bat egiten duela dirudien “egia” aseptikoa: *ezkutuak/dardoak* — armen ontasuna —, etab.) errealtate, neurgailu eta “premisia” objektibo gisa: aldaezina, iraunkorra, ezusterik gabea, parametro finkoetan errota. Maiz, paremiak (edo paremien parekoak) erabil ohi dira lehen euskarri modura.

Bigarren gaia, giza elementuaren presentzia: aldakorra, pasioek eramanneraza, ustekabez betea... eta, nola ez, istorioaren protagonista(k).

Eskema horri esker, hasieratik has daiteke entzulea nolabaiteko *konklusioak* (moralak, portaerazkoak...) sumatzen. Egiazko konklusioak, halere, balada osorik entzundakoan baino ezin aterako ditu.

Azpimarratzekoa da entzuleak lehen unetik daukala gogoan iltzaturik kontatuko zaionaren muina, anekdota (larria bezain dramatikoa izan daitekeena, baina anekdota, azken batean) interpretatzeko zinezko gakoa. Dela traizioa, delat gezurra, delat engainua, entzulea berehala jabetuko da sozialki onetsitako baloreen aurkako erasoaren aurpegietako baten argazkia izango delat gogo-hausnarketa egiteko eskainiko zaiona.

2) Gramatikalki, *bi perpaus* motatan oinarritu ohi da kontrajartze tematikoa. Alde batetik, eta paremien esparruko ereduez baliaturik, perpaus enuntziatibo-assertiboa agertu ohi da lehen bi bertso-lerroetan. Baieztu edo ukatu egiten da zerbait, zerbait hori konstatatzeko edota lekukotasun gisakoren bat eskaintzeko. Ondoren, aurkaritzako perpausa azaldu ohi da (aurrekoarekin kontrastea markatuz), batzuetan esplizitua (juntagailu aurkaria

tartean dagoelarik: *alabaina, ostantzean*), beste zenbaitetan juntagailu agerikorik gabea.

Badirudi, denborak aurrera egin ahala, balada zaharretako exordio haiek inkoherentziazko erreferentzia bezala ulertuta igaro izan zirela ondoko poesiara. Eta *kopla zahar* haietan elementu narratiboekin ezin hobeto uztartzen eta ulertzen zena, poliki-poliki elementu dekoratiboago bilakatu zela, harik eta, bilakaera-sokaren beste muturrean, ornamentu huts bihurtu ziren arte.

Harrezkero, exordio esanguratsu izandako haiek, lotura sozio-logiko guztiak ahazturik, hitz eta irudizko jolas huts bezala estekatu ziren, batik bat soinu-oihartzunetan eta nolabaiteko kidesun fonikoetan oinarrituta.

Uste izatekoa da azken *kopla* hauen erreferentziez baliaturik irakurri izan zirela hizpide izan ditugun balada zaharretako exordioak ere. Eta handik, gero, konfusioak, distortsioak eta kontortsioak.

Alabaina, exordio haiei, gizarte feudalaren itzala bezain zaharrak izan arren, badirudi ezin aplika dakiekeela *kopla* berriago hauen irakurketa-eskemarik, haiek, azken hauen antzera, bere-berezkoak baitzituzten diskurtsoak, eta irudiak, eta erretorikak, eta baliabideak, eta entzuleak, eta koblakariak, eta...

Aramaio, 2013ko ekaina

Aipatutako bibliografia

- AGUD, MANUEL & KOLDO MITXELENA (arg.), 1958, *N. Landuchio. Dictionarium linguae cantabrigae (1562)* (ASJUren Gehigarriak, 1). Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.
- ARRIOLABENGOA, JULEN, 1996, "Erdi Aroko kanta ezezagunak Iburguen-Cachopin kronikan (1570-1620)". *ASJU* 30:1, 71-98.
- ARTOLA CORNAU, M^a GUADALUPE, 1988, "Jean-Baptiste Camoussarry (1815-1842). Una primera aproximación a su vida y a su obra". *ASJU* 22:2, 391-443.
- AZKUE, RESURRECCIÓN M., 1896, "Sermón pronunciado en la iglesia parroquial de Santa María de Guernica el día 21 de Julio de 1896". In *Jaungoikua eta Foruak*. Bilbo, 17-42.
- , 1969, "Suplemento". In *Diccionario vasco-español-francés*. Berrargit. faksim. Bilbo: LGEV.
- CID, JESÚS ANTONIO, 2010, "Re-deconstruyendo la balada: *Atharratze jauregian*". *ASJU* 44:2, 155-220.
- CURTIUS, ERNST R., 1976 [1948], *Literatura europea y Edad Media latina*. Madril [etc.]: FCEM, 2 lib.
- EUSKALTZAINDIA, 2013, *Orotariko Euskal Hiztegia* [online]. Bilbo: Euskaltzaindia. 3. argit. elektronikoa: <<http://www.euskaltzaindia.net/oeh>>.

- GARCÍA MAHÍQUES, RAFAEL, 1991, “*Malum arbor*. El código semiológico de la manzana”. *Ars longa: cuadernos de arte* 2, 81-87.
- GARMENDIA LARRAÑAGA, JUAN, 2007, *Domenjón González de Andia y la villa de Tolosa*. Donostia: Eusko Ikaskuntza.
- JUARISTI, JON, 1986, “El Cantar de Beotibar, ¿un romance noticiario vasco?”. *ASJU* 20:3, 845-856.
- LAKARRA, JOSEBA; BIGURI, KOLDO & URGELL, BLANKA, 1983, *Euskal baladak. Antología eta azterketa*. Donostia: Hordago, 2 lib.
- LEKUONA, MANUEL, 1978, *Literatura oral vasca*. Gasteiz.
- LEKUONA, JUAN MARI, 1997, “Euskal balada tradiziozkoen estiloaz”. In *Federiko Krutwig-i omenaldia. Iker-10*. Bilbo: Euskaltzaindia, 237-257.
- MANRIQUE, JORGE, 2002 [c. 1511], “Coplas a una beoda que tenía empeñado un brial en la taberna”. In A. CORTINA (arg.), *Obras completas* [online]. Alicante: Biblioteca Virtual Miguel de Cervantes. <[.](http://www.cervantesvirtual.com/obra-visor/obra-completa--0/html/ff6c9480-82b1-11df-acc7-002185ce6064_3.html#I_50_>.</p>
<p>MITXELENA, KOLDO, 1964, <i>Textos arcaicos vascos</i>. Madril: Minotauro.</p>
<p>———, 1987 [1979], “Algunas observaciones sobre los cantares de la quema de Mondragón”. In <i>Palabras y textos</i>. Gasteiz: UPV/EHU, 454-463.</p>
<p>——— & RODRÍGUEZ HERRERO, ÁNGEL, 1988 [1959], “Los cantares de la quema de Mondragón (1448)”. In K. MITXELENA, <i>Sobre historia de la lengua vasca</i>. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia & UPV/EHU, 741-747.</p>
<p>MONTOYA, JESÚS & RIQUER, ISABEL DE, 1998, <i>El prólogo literario de la Edad Media</i>. Madril: UNED.</p>
<p>ORMAETXEA, NIKOLA “ORIXE”, 1927, “Euskal-literatura’ren atze edo edesti laburra”. <i>Euskal Esnalea</i>, uztailetik abendura (hemengo aipamenerako: uztaileko zenbakia, 148-156).</p>
<p>SALABERRI, JEAN D. J., 1870, <i>Chants populaires du Pays Basque</i>. Baiona: Lamaingnère.</p>
<p>TORRES NAHARRO, BARTOLOMÉ, 1999 [1517], <i>Tinelaria</i> [online]. Alicante: Biblioteca Virtual Miguel de Cervantes. <<a href=)
- URQUIJO, JULIO, 1976 [1919], “Los refranes de Garibay”, *RIEV* 27, 493-624.
- ZUMTHOR, PAUL, 1989, *La letra y la voz de la “literatura” medieval*. Madril: Cátedra.